

**ELGOIBARKO UDAL BARRUTIAREN BARRUAN
ZUHAITZ ESPEZIE AUTOKTONOAK
LANDATZEKO LAGUNTZEN EMAKIDA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK**

**BASES POR LAS QUE SE REGULA LA
CONCESIÓN DE AYUDAS PARA LA
PLANTACIÓN DE ESPECIES ARBÓREAS
AUTÓCTONAS DENTRO DEL TÉRMINO
MUNICIPAL DE ELGOIBAR**

1. artikulua.- Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da Elgoibarko lursailetan zuhaitz espezie autoktonoak landatzeko dirulaguntzak arautzea, lehiaketarik gabeko norgehiagoka araubidearen bitartez, eta Elgoibarko Udalaren eta Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoa betez.

Artículo 1.- Objeto de las bases

Las presentes bases tienen por objeto regular las subvenciones para la plantación de especies arbóreas autóctonas en terrenos de Elgoibar, en régimen de concurrencia no competitiva y en ejecución de lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos.

2. artikulua.- Dirulaguntzaren xedea eta justifikazioa.

Dirulaguntza honen xedea da udalemian zuhaitz autoktonoen landaketa sustatzea, mendiak basoberritzeko espezie autoktonoak landatu daitezen. Azken xedea da zuhaitz autoktonoen masak sortzea, gaur egun, gure mendietan oso urriak baitira.

Artículo 2.- Finalidad y justificación de la subvención

La finalidad de la presente subvención es fomentar la plantación de árboles autóctonos en el municipio, con el objeto de que la reforestación de los montes que se realice con especies autóctonas. El fin último es impulsar la creación de masas arbóreas autóctonas, tan escasas hoy en día en nuestros montes.

3. artikulua.- Aurrekontuko aurreikuspena

Elgoibarko Udalak aurrekontuko partida bat izendatuko du programa honen xede diren dirulaguntzetarako. Partida 20.000 eurokoa izango da, eta I 0311.480.414.00.01 2023 zenbakidun aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da.

Artículo 3.- Previsión presupuestaria

El Ayuntamiento de Elgoibar destinará una partida presupuestaria para las subvenciones objeto de la convocatoria que se efectúe en el año 2023 con la cantidad de 20.000 Euros y será financiado con cargo a la partida presupuestaria I 0311.480.414.00.01 2023.

Hurrengo urteetan, aurrekontuko partida dirulaguntzaren urteroko deialdian adieraziko dena izango da.

En las anualidades venideras, la partida presupuestaria será la señalada en la propia convocatoria anual de la subvención.

4. artikulua.- Dirulaguntzaren xedea – diruz lagundu daitekeen jarduera

Artículo 4.- Objeto de la subvención – actividad subvencionable

Hirigintza
Urbanismo

Dirulaguntzaren xedea da zuhaitz autoktonoen landaketa sustatzea Elgoibarko udal barrutian duden lursailetan.

Hona hemen landaketek izango dituzten baldintzak:

1.- Landaketaren xede den lursailaren azalera, gutxienez, hektarea erdikoa izan beharko da (5.000 m²).

2.- Landatuko diren espezieak autoktonoak izan beharko dira. Zuhaitz espezie autoktonotzat hartuko dira oinarri hauei erantzen zaion zerrendan jasotzen direnak.

3.- Gutxienez, 500 ale landatu beharko dira hektarea bakoitzeko.

Hainbeste ale behar ez baldin badira (adibidez, basoa modu naturalean hazten ari delako) eta kopuru txikiagoa landatzen baldin bada, laguntza eskuratu ahal izango da, baldin eta, behar bezala justifikatzen bada.

500 ale baino gehiago landatzen baldin badira, kopuru hori gainditzen duten aleek ez dute laguntzarik izango.

4.- Babesak jarri beharko zaizkie landatutako aleei.

5.- Denbora esparrua: landaketa azaroan, abenduan, urtamilean, otsailean eta martxoan egindakoa izan beharko da.

5. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, bai landareak erosteko gastuak, bai landareen babesak eta zutoinak erosteari dagozkionak.

6. artikulua.- Onuradunak

Laguntzen onuradunak izan ahalko dira landaketa egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak, oinarri hauek eta, halaber, "Elgoibarko Udalaren eta Autonomiadun Erakundearen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren" 10. artikuluan, oro har,

El objeto de la subvención es promover la plantación de los árboles autóctonos en terrenos situados en el término municipal de Elgoibar.

Las condiciones de las plantaciones serán las siguientes:

1.- La superficie de terreno objeto de plantación deberá tener, como mínimo, media Hectárea (5.000 m²).

2.- Las especies que se planten deben ser autóctonas. Se consideran especies arbóreas autóctonas las recogidas en la relación que se adjunta a las presentes bases.

3.- Se deberán plantar, como mínimo, 500 ejemplares por cada Hectárea.

En caso de no precisar tantos ejemplares (por ejemplo, porque ya está creciendo el bosque de manera natural), podrá ser objeto de ayuda la plantación de un número menor, siempre y cuando sea justificado debidamente.

En caso de que se planten más de 500 ejemplares, los que excedan de dicha cifra no serán objeto de ayuda.

4.- Se deberán colocar protectores a los ejemplares plantados.

5.- Ámbito temporal: la plantación ha de ser realizada en los meses de noviembre, diciembre, enero, febrero y marzo.

Artículo 5.- Gastos subvencionables

Se considerarán gastos subvencionables tanto los gastos de adquisición de las plantas, como los correspondientes a la adquisición de los protectores de las plantas y de los postes.

Artículo 6.- Personas beneficiarias

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas aquellas personas físicas o jurídicas que realicen la plantación y que cumplan las presentes bases y lo establecido con carácter general en el artículo 10 de la "Ordenanza General de Subvenciones del

Hirigintza
Urbanismo

ezarritakoa betetzen dutenak.

Ez dira, ezinbestean, lursailen jabeak izango, baina justifikatu egin beharko dute landaketa egiteko ahalmena ematen dien titulua (jabeak edo usufruktudunak izatea, jabetzarekin egindako lagapen hitzarmenak, e.a.).

Onuradunek, nolanahi ere, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

2.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

3.- Elgoibarko Udalarekiko zergen eta isunen ordainketan egunean egotea.

7. artikulua.- Dirulaguntzak emateko irizpidea

Laguntza emango zaie oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei, baldin eta landaketak egiteko ezarritako baldintzak betetzen badira, abian den urterako udal kreditua agortzen den arte.

8. artikulua.- Eskaerak eta dokumentazioa

Eskaerak aurkezteko oinarri hauen Eranskinean ageri den eskaera eredua bete beharko da.

Horretaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a.- Eskatzailearen NANaren edo IFZren fotokopia.

b.- Pertsona juridikoen kasuan, eraketa tituluaren kopia.

c.- Katastroko plano, non adieraziko baita zein partzelatan egin den landaketa. Toki horretarako sarbidea ere adieraziko da.

d.- Egin edo egingo diren lanen azalpen eta

Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos”.

No tienen por qué ser necesariamente las personas propietarias de los terrenos, pero deberán justificar el título que les habilita para realizar la plantación (ser propietarias, usufructuarias, convenios de cesión con la propiedad, etc.)

Las personas beneficiarias deberán cumplir, en todo caso, los siguientes requisitos:

1.- Estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa

2.- Estar al corriente de las obligaciones de seguridad social.

3.- Estar al corriente del pago de tributos y sanciones del Ayuntamiento de Elgoibar.

Artículo 7.- Criterio de concesión de subvenciones

Se concederá la ayuda a todas aquellas personas solicitantes que cumplan con los requisitos señalados en las presentes bases, siempre y cuando se cumplan las condiciones establecidas para las plantaciones, hasta que se agote el crédito presupuestario municipal para la anualidad en curso.

Artículo 8.- Instancias y documentación

Las solicitudes deberán presentarse cumplimentando el modelo de solicitud que se acompaña a las presentes bases en el Anexo. Además, se acompañará la siguiente documentación:

a.- Fotocopia del DNI o NIF de la persona solicitante.

b.- En caso de persona jurídica, copia del título de constitución.

c.- Plano de catastro indicando la parcela en la que se ha realizado la plantación, e indicando también al acceso al lugar.

d.- Breve memoria explicativa y descriptiva de los

Hirigintza
Urbanismo

deskribapen memoria laburra (zein lursailetan egin den landaketa / lursailaren azalera / landaketaren datak / landatutako ale kopurua eta espezieak / babeserako erabili diren elementuak, e.a.). Argazkiak ere aurkeztuko dira.

e.- Landaketa egiteko ahalmena ematen duen tituluaren kopia (jabetza titulua, jabetzarekin sinatu den lagapen hitzarmena edo bestelakoak).

f.- Eskatzailearen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria (libretaren fotokopia edo bankuaren egiaztagiria)

9. artikulua- Udalak berak jasoko dituen datuak.

Elgoibarko Udalak, NISAE nodoaren bitartez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioen esku jarri dituzten datuei dagokienez, baita dirulaguntza honen administrazio tramitaziorako beharrezkoa den beste edozein egiaztapen eta kontsulta ere. Horrexegatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada. Kasu horretan, dagozkion datuak edo agiriak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da. Artikulu horretan aitortzen da herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein Administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, datuak edo ezarri beharreko araudiak eskatzen ez dituen dokumentuak, baldin eta interesdunak, aldez aurretik, edozein Administrazioi eman badizkio.

Era berean, 40/2015 Legaren 155. artikulua adierazten duena gogora ekariz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

ildo horretatik, Elgoibarko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu oinarri hauen xede den dirulaguntza eskuratzeko, NISAE datuen bitartekaritzarako eta beste administrazio batzuetako plataformatik: **Foru Ogasunarekiko**

trabajos realizados o que se vayan a realizar (terrenos en que se ha realizado la plantación/ título habilitante/ superficie del terreno/ fechas de la plantación/ número de ejemplares y especies plantadas/ elementos protectores utilizados, etc.). Se acompañarán fotografías.

e.- Copia del título habilitante para realizar la plantación (título de propiedad, convenio de cesión con la propiedad, u otros).

f.- Documento que acredite la titularidad de la cuenta bancaria del/la solicitante (fotocopia de la libreta o certificado del banco).

Artículo 9.- Datos que recabará el propio Ayuntamiento

El Ayuntamiento de Elgoibar mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Elgoibar va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención objeto de estas bases desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones NISAE: **estar al corriente de las obligaciones tributarias con**

Hirigintza
Urbanismo

zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea

Horrexegatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada. Kasu horretan, dagozkion datuak edo agiriak aurkeztu beharko ditu.

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

Elgoibarko Udalarekiko zergen eta isunen ordainketan egunean egotearen egiaztapena Udalak berak zuzenean jasoko dituen datuen bidez egingo da.

10. artikulua.- Akatsak zuzentzea

Eskaerak oinarrietan edo/eta deialdiaren araudian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak eskaeran dauden akatsak zuzentzeko eskatuko dio interesdunari, eta horretarako, gehienez ere, hamar laneguneko epe luzaezina emango dio. Era berean, ohartaraziko dio, hori egin ezean, eskaerari uko egiten diola uste izango dela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz egin den ebazpena eman ondoren.

11. artikulua.- Eskaera aurkezteko epea eta era

1. Eskaerak aurkezteko epea adieraziko da Udalak bere egunean Udalak egingo duen deialdian.

Deialdi honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Eskaera modu elektronikokan aurkeztu beharko da Udalaren webgunean: <https://www.elgoibar.eus>.

Eskaera aurkezteko identifikazio elektronikoa aurkeztu beharko da, eta horretarako, Elgoibarko

Hacienda Foral de Gipuzkoa y de seguridad social

Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes:

- Certificado de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con Hacienda Foral de Gipuzkoa.
- Certificado de hallarse al corriente de las obligaciones de seguridad social.

El estar al corriente del pago de tributos y sanciones del Ayuntamiento de Elgoibar será recabados directamente por el Ayuntamiento.

Artículo 10.- Subsanación de defectos

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en las bases y/o la convocatoria, se requerirá a la persona interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez (10) días hábiles, indicándole que si no lo hiciera se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 11.- Plazo y forma de presentación de la solicitud

1. El plazo de inicio y fin de presentación de solicitudes se señalará en la convocatoria que en su día efectúe el Ayuntamiento.

El extracto de dicha convocatoria será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

2. La solicitud deberá ser presentada electrónicamente en el portal ciudadano de la página web del Ayuntamiento: <https://www.elgoibar.eus>

Para dicha presentación será preciso obtener la identificación electrónica, para lo cual se podrá

Hirigintza
Urbanismo

Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzura (Santa Ana kalea 29 joan beharko da.

Salbuespen gisa, pertsona fisikoen kasuan, eskaera aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango da Herritarren Arreta Zerbitzuan. Nolanahi ere, Elgoibarko Udalak eskatzaileari egongo dizkion jakinarazpenak modu elektronikoan egingo dira, horrexegatik, identifikazio elektronikoa lortzeko gomendioa egiten da.

12. artikulua.- Ebazteko organoa eta prozedura

Eskaerak ebazteko organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da, eta hark emango du ebazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitako izapidetze egintzak egin ondoren, honako modu honetan:

Hirigintza Saileko zerbitzuetako teknikariek eskaerei buruzko txostenak egingo dituzte, eta hala badagokio, Herritartasun Batzordeak dirulaguntza emateko egingo duen proposamena erantsiko da.

Eskaerak Tokiko Gobernu Batzarrak ebazteko ditu aurkeztu eta, gehienez ere, lau (4) hilabeteko epean.

Epe hori igaro eta ebazpenik ematen ez baldin bada, eskatzaileak uste izango du bere eskaera ezetsi egin dela.

13. artikulua.- Dirulaguntzaren ebazpenaren aurkako errekurtsoak

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko akordioak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, birjarpen errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Donostiako epaitegian.

14.- artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa dela eta, 2 €-ko zenbateko finkoa ezarriko da landatutako alde bakoitzeko. Zenbatekoa, gehienez ere, 1.000 €-koa

acudir al Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Elgoibar (Santa Ana kalea, 2).

Excepcionalmente, en caso de personas físicas, también va a poder ser presentada presencialmente en la oficina del Servicio de Atención a la Ciudadanía. Ello, no obstante, las notificaciones que realice el Ayuntamiento a la persona solicitante se realizarán de forma electrónica, por lo que se recomienda que se obtenga la correspondiente identificación electrónica.

Artículo 12.- Órgano de resolución y procedimiento

El órgano competente para resolver las solicitudes será la Junta de Gobierno Local, quien dictará la resolución, previos los actos de instrucción contemplados en la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre General de Subvenciones, en los siguientes términos:

Las solicitudes serán informadas por los servicios técnicos del Departamento de Urbanismo y acompañadas, si procede, por la oportuna propuesta de concesión de la Comisión de Territorio.

Serán resueltas por la Junta de Gobierno Local en el plazo máximo de cuatro (4) meses desde su presentación.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya dictado y notificado la resolución, la persona solicitante podrá entender desestimada su solicitud.

Artículo 13. Recursos contra la resolución de la subvención

El acuerdo de concesión o denegación de la subvención pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma cabrá bien la interposición del recurso potestativo de reposición, o bien interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de la Contencioso-Administrativo de Donostia.

Artículo 14.- Cuantía de la ayuda

La cuantía de la subvención se establece en una cantidad fija de 2€ por cada ejemplar plantado, con una cuantía máxima de 1.000€ por Hectárea.

Hirigintza
Urbanismo
izango da hektarea bakoitzeko.

15.-artikulua.- Gastua justifikatzea eta dirulaguntza ordaintzea

Aurkeztu behar diren dokumentuak:

Landaketen gastua (landareak, babesak eta zutoinak) honako agiriaren bitartez justifikatuko da:

- Eraz jaulkitako fakturak.
- Transferentzien bankuko agiriak.
- Memoria laburra eta landatutako gunearen argazkiak.

Dirulaguntza ordainduko da faktura bankuko transferentziaren bidez ordaintzen denean bakarrik. Ez dira onartuko eskudirutan egindako ordainketak.

Justifikazioa aurkezteko epea:

Justifikazioa, gehienez ere, landaketa egin eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, edo bestela, dirulaguntza eman eta hiru hilabeteko epean, baldin eta ondorengoa bada.

Dirulaguntzak egiaztatzea eta ordaintzea:

Udalak lekua ikusteko bisita bat egingo du, landaketa Oinarri hauetan jasotako baldintzetan egin dela egiaztatzeko.

Beste alde batetik, udal zerbitzu teknikoek onuradunei ordaindu behar zaizkien zenbatekoei buruzko txostena egingo dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko diote dagozkion ordainketak onar ditzala.

Ordainketak zuzenean egingo dira, bankuko transferentziaren bitartez, onuradunak eskaera egiteko inprimakian adierazi duen kontu korrontean.

Ordainketen onarpena modu elektronikoa jakinaraziko zaie onuradunei.

16. Artikulua.- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak

Artículo 15.- Justificación del gasto y abono de la subvención

Documentación a presentar:

El gasto de las plantaciones (plantas, protectores y postes) será justificado mediante los siguientes documentos:

- Facturas emitidas en forma
- Justificantes bancarios de las transferencias
- Breve memoria y fotografías de la zona plantada.

Solo será abonada la subvención cuando la factura haya sido pagada mediante transferencia bancaria. No se aceptará el pago realizado en efectivo.

Plazo para presentar la justificación:

La justificación será presentada, como máximo, en el plazo de tres meses desde la fecha de la plantación, o de la fecha de concesión de la subvención, si es posterior.

Comprobaciones y abono de la subvención:

El Ayuntamiento realizará una visita al lugar para comprobar que se ha realizado la plantación en las condiciones señaladas en las presentes Bases.

Por otro lado, los servicios técnicos municipales realizarán el informe de las cantidades a abonar a las personas beneficiarias, y se propondrá a la Junta de Gobierno Local la aprobación de los abonos correspondientes.

Los abonos se realizarán directamente mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente indicada en el impreso de solicitud por la persona beneficiaria.

La aprobación de los abonos será notificada electrónicamente a las personas beneficiarias.

Artículo 16. Compatibilidad con otras subvenciones

Las ayudas previstas en las presentes Bases serán

Hirigintza
Urbanismo

bateragarriak izango dira beste Administrazio Publikoren batetik xede bererako lor daitezkeen mota guztietako dirulaguntzekin edo laguntzekin. Nolanahi ere, inola ere ezin izango da gastuen guztizko kostua gainditu.

Emandako dirulaguntzek guztizko kostua gainditzen baldin badute, Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu ahal izango du gehienez ere diruz lagun daitezkeen zenbatekora arte doitzeko.

17. artikulua.- Dirulaguntza indargabetzeko arrazoiak

Bidezkoa izango da dirulaguntza baliogabetzea, eta hala badagokio, oker jasotako zenbatekoak itzularaztea, "Elgoibarko Udalaren eta Autonomiadun erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren" III. atalburuan aurreikusitako kasuetan.

18. Artikulua.- Interpretazioa

Elgoibarko Udaleko Lurralde Batzordearen eskumena izango da oinarri hauen ondorioz gerta litezkeen zalantzak interpretatzea eta ebaztea.

19. Artikulua.- Araudi osagarria

Oinarri hauetan berariaz jaso ez diren kasu guztietan, "Elgoibarko Udalaren eta Autonomiadun Erakundeen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean" xedatutakoa hartuko da kontuan. Horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta dirulaguntzei buruzko legedi orokorrean ezarritakoa izango da kontuan.

20. artikulua.- Argitalpena

Dirulaguntzaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Interesdunak eskaera sinatzen baldin badu, uste izango da oinarri hauek osoki onartzen dituela.

compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total del gasto.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el Ayuntamiento podrá reducir la cuantía de la subvención concedida hasta ajustarlo al máximo de la cuantía subvencionable.

Artículo 17. Causas de revocación de la subvención

Procederá la revocación y, en su caso, el reintegro de las cantidades indebidamente percibidas, en los supuestos contemplados en el Título III de la "Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos".

Artículo 18. Interpretación

Será competencia de la Comisión de Territorio del Ayuntamiento de Elgoibar, la interpretación y resolución de las dudas que de las presentes bases pudieran resultar.

Artículo 19 Normativa complementaria

En todos aquellos supuestos que no han sido recogidos expresamente en las presentes bases, se estará a lo dispuesto en la "Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos". Además, se tendrá en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003 General de subvenciones y en la legislación general de subvenciones.

Artículo 20. Publicación

Las bases de la subvención se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de acuerdo con la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

DISPOSICIÓN FINAL

Única.- La solicitud firmada por la persona interesada, supondrá la total aceptación de estas bases.

ERANSKINA/ANEXO
BERTAKO ZUHAITZ ESPEZIE AUTOKTONOAK / ESPECIES ARBÓREAS AUTÓCTONAS

Izen Zientifikoa	Euskaraz	Gaztelaniaz
<i>Acer campestre</i>	Astigar arrunta	Arce menor
<i>Alnus glutinosa</i>	Haltza	Aliso
<i>Arbutus unedo</i>	Gurbitza	Madroño
<i>Betula celtiberica</i>	Urkia	Abedul
<i>Castanea sativa</i>	Gaztainondoa	Castaño
<i>Cornus sanguinea</i>	Zuhandorra	Cornejo
<i>Corylus avellana</i>	Hurritza	Avellano
<i>Crataegus monogyna</i>	Elorri zuria	Espino albar
<i>Euonymus europaeus</i>	Basaerramua	Bonetero
<i>Fagus sylvatica</i>	Pagoa	Haya
<i>Frangula alnus</i>	Zumalakarra	Arraclán
<i>Fraxinus excelsior</i>	Lizar arrunta	Fresno
<i>Ilex aquifolium</i>	Gorostia	Acebo
<i>Laurus nobilis</i>	Erramua, Ereintza	Laurel
<i>Ligustrum vulgare</i>	Arbustu arrunta	Aligustre
<i>Malus sylvestris</i>	Sagarmina	Manzano silvestre
<i>Phillyrea latifolia</i>	Gartxu hostozabala	Labiérnago prieto
<i>Populus tremula</i>	Lertxuna	Álamo temblon
<i>Prunus avium</i>	Gereziondoa	Cerezo
<i>Prunus lusitanica</i>	Portugal erramua	Loro
<i>Prunus mahaleb</i>	Oilarana	Cerezo de santa lucía
<i>Prunus spinosa</i>	Elorri beltza	Endrino
<i>Pyrus cordata</i>	Makatza, Udareondoa	Peral silvestre
<i>Quercus humilis</i>	Ametz ilaunduna	Roble pubescente
<i>Quercus faginea</i>	Erkametza	Quejigo
<i>Quercus ilex</i>	Artea	Encina
<i>Quercus petraea</i>	Haritz kandugabea	Roble albar
<i>Quercus pyrenaica</i>	Ametza	Melojo
<i>Quercus robur</i>	Haritz kanduduna	Roble pedunculado
<i>Quercus suber</i>	Artelatza	Alcornoque
<i>Rhamnus alaternus</i>	Txorbeltza	Aladierno
<i>Rhamnus alpina</i>	Otsapagoa	Pudio

<i>Salix alba</i>	Zume zuria	Sauce blanco
<i>Salix atrocinerea</i>	Sahats iluna	Bardaguera
<i>Salix caprea</i>	Ahuntz-sahatsa	Sauce cabruno
<i>Salix fragilis</i>	Zume hauskorra	Sauce, Mimbrera
<i>Salix purpurea</i>	Zume gorria	Sagartillo
<i>Sambucus nigra</i>	Intsusa beltza	Saúco común
<i>Sorbus aria</i>	Hostazuria	Mostajo
<i>Taxus baccata</i>	Hagina	Tejo
<i>Tilia platyphyllos</i>	Ezki hostozabala	Tilo de hoja grande
<i>Ulmus glabra</i>	Zumar hostozabala	Olmo de montaña